

## Haur Hezkuntzako Gradua

2014-2015 ikasturtea

# Zaintzen garrantzia Haur Hezkuntzako lehenengo zikloan

Egilea: Ane Silva Diaz

Zuzendaria: Elena Herrán Izagirre

Leioan, 2015eko ekainaren 4an

ZUZENDARIAREN ONIRITZIA

EGILEAREN ONIRITZIA



## AURKIBIDEA

<b>Sarrera</b> .....	3
<b>1. Emmi Pikler eta Lóczy</b> .....	4
1.1. Emmi Pikler .....	4
1.2. Lóczy-ren bilakaera .....	5
1.3. Lóczy-ren printzipioak.....	7
1.4. Lóczy-ko jardura nagusiak.....	13
<b>2. Zaintzak Pikler-Lóczy metodologian</b> .....	15
2.1. Zaintzen ezaugarriak.....	15
2.1.1. Keinu gozoak .....	16
2.1.2. Haurren parte hartzea.....	17
2.1.3. Ordena ezartzea.....	18
2.2. Zaintzak.....	20
2.2.1. Bainua .....	20
2.2.2. Pixoihalen aldaketa .....	21
2.2.3. Janzte-erantztea .....	22
2.2.4. Otorduak.....	23
2.2.5. Azterketa medikoak .....	24
2.2.6. Loa .....	25
2.3. Laburbilduz.....	26
<b>3. Ondorioak</b> .....	27
<b>4. Bibliografia</b> .....	29

**ZAINTZEN GARRANTZIA HAUR HEZKUNTZAKO LEHENENGO ZIKLOAN**

Ane Silva Diaz

UPV/EHU

**Laburpena:** Gizarteak jasandako aldaketak direla eta, eskolatze goiztiarrak nabarmen egin du gora azken urteotan. Haurrak bere biziko lehen hilabeteetan gurasoengandik aldendu eta haur eskolara joan beharra dauka. Hala ere, lehen haurtzaroko edo 0-3 urte bitarteko haurren premiak ez dira Haur Hezkuntzako bigarren zikloko haurren beharrezan berdinak eta, ondorioz, gure hezkuntza sistema egoera berri horretara egokitzen jarraitu beharra daukagu. Lan honetan haurra behatu eta tratatzeko eredu ezberdin bat aurkeztuko da, Emmi Pikler pediatriak sortutakoa eta Lóczy-n aurrera eramaten dena. Horretarako, Pikler-Lóczy pedagogia horretako atal batean, hots, eguneroko zaintzetan murgildu eta horiek sakon aztertzeari ekingo diogu. Eredu hori gure eremuko haur eskolakoetatik aldendu arren, gure jardunbidea birplanteatzeko aukera paregabea eskaintzen digu.

**Gako-hitzak:** *Pikler-Lóczy pedagogia, kalitatezko zaintzak, hezitzaile, garapen goiztiarra, jarrera hezitzailea, haur eskola.*

**Resumen:** Debido a los cambios que ha sufrido la sociedad, en los últimos años ha habido un notable incremento en la escolarización temprana. En sus primeros meses de vida, los niños deben separarse de sus padres para ir a la escuela infantil. Aún así, debemos tener en cuenta que las necesidades de la primera infancia o de los niños de 0 a 3 años no son las mismas que las de los niños del segundo ciclo de Educación Infantil y, por lo tanto, es necesario seguir adaptando nuestro sistema educativo a esa nueva situación que se nos presenta. En este trabajo se plantea una manera distinta de observar y tratar al niño, modelo que estableció la pediatra Emmi Pikler y que se lleva a cabo en Lóczy. Para ello, nos sumergiremos y analizaremos a fondo una parte de la pedagogía Pikler-Lóczy, los cuidados cotidianos. Aunque ese modelo que se presenta difiera mucho del que disponemos actualmente en las escuelas infantiles de nuestro entorno, nos ofrece la oportunidad de replantear nuestra labor.

**Palabras clave:** *Pedagogía Pikler-Lóczy, cuidados de calidad, educador(a), desarrollo temprano, actitud educativa, escuela infantil.*

**Abstract:** Due to the changes in our society, early school attendance has increased significantly in recent years. During the first months of their lives, children have to get away from their parents and go to a nursery. However, the necessities on the first childhood or children between 0 and 3 years old are not the same as the ones of children in the second stage of pre-school kindergarten. Therefore, there is a necessity to continue adapting our scholar system to this new situation. In this project a different way to observe and treat children will be explained, a way which was offered by the paediatrician Emmi Pikler and is applied in Lóczy. For that purpose, a part of the Pikler-Lóczy pedagogy will be deeply analysed, the daily cares. Although this model differs from the one we currently have in our nurseries, it gives us the opportunity to reconsider our work.

**Key words:** *Pikler-Lóczy pedagogy, quality cares, educator, early development, educative attitude, nursery.*

## **SARRERA**

Haurraren lehen urteak bere biziko garrantzitsuenak dira, izan ere, urte horietan zehar izandako esperientziek haurtzaroko eguneroko bizitza baldintzatzeaz gain, bere etorkizuneko bizitzan eragin zuzena izango dute. Hau da, haurraren eta etorkizunean izango den helduaren bizitza, hein handi batean, lehen haurtzaroan izandako esperientzien arabera izango da. Urte horietan zehar, motrizitatearen garapen globala emateaz gain, bere nortasuna, bere buruarekiko irudia, kontzientzia eta jarrera finkatuko dira, bere burua eta, aldi berean, ingurua ezagutzen joango da, guztia espazioan eta denboran kokatuz (Wallon, 1984). Eskolan txikitatik ordu asko igarotzen dituen heinean, hezitzailearen rola edo eta jarrerak prozesu horretan berebiziko garrantzia daukala esan daiteke; izan ere, berari dagokio, eskola orduetan behintzat, haurrari hazteko eta garatzeko behar dituen baldintzak eskaintzea.

Haur Hezkuntzako Graduak 0-6 urte bitarteko haurrekin lan egitea ahalbidetzen badu ere, lau urteetan zehar lehen haurtzaroaz jasotzen den formazioa eskasa dela esan daiteke. 0-3 urte bitarteko haurren inguruko oinarritzko ezagutza batzuk jasotzen diren arren, ez da horretan gehiegi sakontzen. Beraz, etapa horren garrantzia ikusita eta Gradu Amaierako Lana aprobetxatuz, arlo horretan gehiago sakontzea erabaki da.

Horretarako, Emmi Pikler pediatria hungariarrak eskaintako eredua, Lóczy-n urteetan zehar aurrera eraman izan dena eta, oraindik ere, erabiltzen jarraitzen dena, hartu da oinarritzat. Guztia sakon aztertzea ezin hobea izango litzatekeen arren, urteetan zehar ikertu, deskribatu eta aurrera eraman den eredu hori orri gutxi batzuetan laburtzea ezinezkoa litzateke. Beraz, hori kontuan izanda, Lóczy-ko jardura nagusietariko batean zentratzea erabaki da, zaintzak, hain zuzen ere. Horien garrantzia izugarria da etapa honetan, hurrengo orrietan azalduko den bezala. Baina, zaintzak eta horietan jarduteko eraren zergatiak ulertzeko, beharrezkoa da baita Lóczy-ko printzipioetan pixka bat sakontzea.

Hurrengo orrietan, Lóczy-ko eguneroko bizitzako ezaugarri nagusiak aztertu eta zaintzetan sakonago arituko da, amaitzeko, gure eremuan hezitzailearen jarduna birplanteatzeko beharra azpimarratuz. Lanean zehar hezitzaile hitza erabiliko da, etapa honetako haurren ezaugarriak eta beharrak ikusita, hitz egokiena delakoan eta gelan dagoen pertsonaren lana hoberen deskribatzen duelakoan.

## 1. EMMI PIKLER ETA LÓCZY

### 1.1. Emmi Pikler

Emmi Pikler Vienan jaio zen 1902an. Budapesten igaro zuen haurtzarora eta Vienara bueltatu zen medikuntza ikasketak burutzeko. Pediatrian espezializatu eta, Pirquet eta Salzer irakasleen gidaritzapean, Vienako Ospitale Unibertsitarioan egin zituen praktikak. Bertan, haurra behatzeko eta tratatzeko ikusmolde berri bat ezagutu zuen: zaintza pediatrikoak haurrentzat ahalik eta atseginen izan zitezten saiatzen ziren, negar egitea ekidinez eta keinu eta laztanak eginez; haurrek arropa eroso zeramaten, beraien mugimenduak mugatzen ez zituena; haur gaixoei jolasteko aukera ematen zieten, egun guztia ohean igaro beharrean; hainbat ordu igarotzen zituzten kanpoan; eta ez zitzairen jatera derrigortzen. Ikusmolde berri hori bere etorkizuneko jarreraren oinarri izan zen.

Pikler-rek ospitale honetan fisiologia eta prebentzioaren inguruko ikusmolde berria ere eraiki zuen. Fisiologia ikertzea gorputzaren funtzionamendua testuinguru naturalean behatzea zen; prebentzioa ez zetzan gaixotasun jakin batzuk ekiditeko neurriak hartzean, baizik eta garapen osasuntsu eta bizitza zein inguruarekiko harreman harmoniatsuak izateko baldintzak eratzean (Herrán, 2014).

Ospitale honetan aurreko guztiaz gain, beste zerbaitek ere bere arreta erakarri zuen: istripuen estatistikak. Auzo langileetako haurren istripuetan haustura eta kommozio gutxiago izaten ziren auzo aberatsetako haurren istripuetan baino. Lehenengoak kaleetan jolasten eta korritzen aritzen ziren; besteen istripuak, ordea, etxeetan edo paseatzen aritzen ziren bitartean gertatzen ziren. Pikler-en ustez desberdintasun horren arrazoia honakoa zen: askatasunez mugitzen ziren haurrak, kontu handiagoz ibiltzen ziren eta hobeto ikasten zuten erortzen; gehiegi babestuta zeuden haurrek, ordea, ez zituzten beraien gaitasun eta mugak ondo esperimendu eta, ondorioz, arrisku handiagoa zuten.

Esperientzi horietaz gain, bere gizonaren ideia pedagogiko progresistak ere hartu zituen oinarri. Beraien lehenengo alaba jaio eta Pikler-rek teoria eta printzipio horiek guztiak praktikan jarri zituen: haurraren erritmo naturala eta mugimendu autonomoak errespetatzen zituzten, bere garapen naturala oztopatu gabe. Haurrari mugimendu askatasunerako beharrezko espazioa eskaintzen zioten, bere jardura autonomoak oztopatzen ez zituen arropa jantzen zioten, jostailu egokiak bere eskura jartzen zituzten, beharrezko zaintza eta afektua ematen zioten, bere burua eta ingurua ezagutzeko gogoia

piztuz. Laburbilduz, lasaitasunez eta modu harmoniatsuan bizitzeko baldintzak eskaini zizkioten (Falk, 1986).

Bere alabarekin izandako esperientzia positiboa izan zenez, Emmi Pikler-ek, Hungarian familia pediatria gisa lanean jarraitu zuen. Urte horietan zehar, hainbat familia bisitatu zituen, haurren ongizatea ziurtatzeko eta, behar izanez gero, haur gaixoei beharrezko zaintza medikoak emateko. Azken finean, haurren osasuna bermatzea zen helburua. Hori dela eta, familiak aholkatu eta beraiengan seme-alaben gaitasunekiko konfiantza eratu eta beraien erritmoa errespetatzen irakatsi zien. Familiekin batera, eguneroko bizitza antolatzen eta beharrezko baldintzak sortzen aritu zen; autonomoki jolasteko momentuetan espazio eta segurtasun baldintza egokiak ziurtatzen zituzten eta, zaintza momentuak, ordea, intimoak eta atseginak ziren, non haurren erritmoa errespetatzen zuten, presak alde batera utziz. Horiek izan ziren lehen “Pikler umeak” (Herrán, 2014).

Modu horretan, pediatria honek 10 urtetan zehar bere ideia eta printzipioak esperimendu, frogatu eta zehaztu zituen. Haurrak, orokorrean, alaiak, kuriosoak, biziak eta aktiboak zirela ikusteko aukera izan zuen, modu orekatuan garatzen ziren eta bai gurasoekin bai inguruarekin eratzen ziren harremanak onak ziren (Falk, 1986). Era berean, gurasoak ere pozik zeuden; izan ere, nahiz eta Pikler-ek proposatutako sistema horrek beraiengandik asko eskatu, emaitzak paregabeak ziren (Falk, 1986).

Urte asko pasatu dira “Pikler ume” horiek hazi zirenetik eta beraien bizitza, lana eta seme-alabei emandako hezkuntza eta izandako jarrera ikusirik, beraien gurasoek jasotako laguntza onuragarria izan zela esan daiteke (Herrán, 2014).

## **1.2. Lóczy-ren bilakaera**

1946an, II. Mundu Gerra ostean, Hungariako gobernuak Budapest-eko umezurtz etxe bat zuzentzeko eskatu zion Pikler-ri, Lóczy sehaska-etxea, beranduago, 1964an, Lóczy Institutua bihurtuko zena. Bertan, batetik, umezurtzak ziren umeak zeuden eta, bestetik, arrazoi ezberdinengatik (gaixotasunak, esaterako), gurasoek zaindu ezin zituzten haurrak, guztiak 0-3 urte bitartekoak.

Pikler-ek hiru helburu nagusi zehaztu zituen (Herrán, 2014): batetik, instituzio batean ere, familian baino zailtasun handiagoekin bada ere, haurren garapen fisiko zein psikiko egokia posiblea dela frogatzea; bestetik, Lóczy-n bere hezkuntza sistema aplikatzea, izan ere, umezurtz etxean hazitako haurrak ondo garatuz gero, bere

printzipio eta metodoen eragina frogatuta geratuko litzateke; azkenik, haurren eta beraien bizi baldintzen azterketa eta ikerketa sakonak egitea, eguneroko bizitzako egoeretan.

Haurrak instituzioan behar bezala gara zitezen, ezinbestekoa zen familian eratutako eta frogatutako metodologia sortzea, baldintzak eratzea eta, batez ere, zaintzaileak formatzea eta metodo hori erakustea (Falk, 1986).

Hasiera batean lana ez zen erraza izan, Lóczy-ko baldintzak ez baitziren batere egokiak eta zaintzaileak ez baitziren Pikler-en metodoaren garrantziaz jabetzen. Hiru hiletan zehar Pikler bere printzipioak aplikatzen saiatu zen, baina ez zuen arrakastarik izan, batez ere, zaintzaileen jarrera zela eta. Beraz, guztiak kaleratu eta formakuntzarik gabeko baina interes handia zuten gazteak bilatu zituen.

Pikler-rek gazte horiei haurrak nola zaindu eta hezi irakatsi zien; hots, eguneroko zaintzetan haurrak errespetuz tratatzen, beraien seinaleak interpretatzen, erritmo desberdinetara egokitzen eta segurtasunezko harremana sortzen irakatsi zien. Horrez gain, haurren keinuak, jarduerak, begiradak, ahotsa eta posturak behatzen eta interpretatzen irakatsi zien (Herrán, 2014), baita beharizan indibidualak modu lasai batean eta presarik gabe asetzen. Zaintza momentuetan, haurrei hitz egitearen garrantziaz ohartarazi zien, egin beharrekoa azaltzearen eta beraien erantzuna interpretatzearen garrantziaz. Haurrei ezer egiten ez behartzearen inportantzia azpimarratu zuen, hori egin beharrean, haurren ekiteko gogoia eta nahia bilatu behar baitzen (Falk, 1986).

Era berean, Lóczy haurren mugimendu askatasuna ahalbidetzen zuten materialez hornitu zuen Pikler-rek: haurrentzako arropa erosoak, jostailu erakargarriak, altzairu egokiak, eta abar. Material horiek bai etxe barruan bai patioetan zeuden, haurrek denbora asko igarotzen baitzuten kanpoan. Haurrak esna zeuden aldietan, zaintzaileek jolasteko eremuan uzten zituzten, barruan zein kanpoan, objektu horiez inguraturik, modu autonomoan jolas zezaten.

Haurren garapena ahalbidetzeko beharrezko baldintzak eskaintzeaz gain, Lóczy-n haurren garapen globalaren inguruko hainbat ikerketa egin ziren. Pikler-rek, Lóczy-n lanean aritzen ziren pertsonekin batera, bere printzipioak frogatu eta horietan sakontzeko aukera izan zuen. Pixkanaka, haurren garapen guztiak ikusi eta idazten joan ahala, haur osasuntsu eta orekatuei ez zaiela mugitzen eta jolasten irakatsi behar ziurtatu zuten, beraien esperientzia propioen bidez eta beraien plazeretatik abiatuz garatzen direla (Falk, 1986). Gainera, zaintza momentuak zenbat eta alaiagoak, intimoagoak eta

seguruagoak izan, haurren aktibo izateko gogoia eta nahia ere handiagoa dela frogatu zuten (Falk, 1986).

Urteak aurrera joan ahala, Lóczy handitzen joan da eta, ondorioz, haur zein profesional kopurua hazten joan da ere. 1961ean, “Umezurtz etxe metodologikoa” bilakatu zen; 1964an, berriz, “Umetxoa eta ume txikia zaintzeko Metodo Pedagogikoen Institutua” izendatu zuten. 1970ean “Sehaska etxeen Metodologiarako Institutu Nazionala” bihurtu zen eta Hungariako beste sehaska etxe batzuk ikertu eta aholkatzeari ere ekin zion. Horietako batzuetan arrakastarik lortu ez arren, gehienak beraien lana hobetzen saiatu ziren. 15 urtetan aurrerapen handiak lortu zituzten gainerako umezurtz etxeetan.

Azkenik, 2011.urtean, umezurtz etxea itxi zuten, baina haren ordezkoa hartu zuten 2006an zabalduko “Pikler Haur Eskolak”, “Hungariako Pikler Lóczy Elkarteak” eta “Umeentzako Lóczy Fundazioak” (Herrán, 2014), egun martxan jarraitzen dutenak. Pikler-rek eratutako sistema hori ikertzen, garatzen eta perfektzionatzen jarraitzen dute, horren helburuak, baldintzak eta metodoak analizatuz eta baita haurren garapen prozesua eta inguruaren zein harremanen eragina aztertuz.

### **1.3. Lóczy-ren printzipioak**

Emmi Pikler Lóczy-n lanean hasi bezain pronto urteetan zehar hainbat familiatan frogatutako eredua aplikatzen hasi zen, haurrei eskaintzen zitzaizen zaintzak eta beraien jarduera autonomoak eredu horren ardatza izanik. Bi ardatz horietan oinarritzen dira, hain zuzen ere, Lóczy-ko lau printzipio nagusiak, eguneroko bizitzako jarduera guztietan aplikatzen direnak (David eta Appell, 2010):

- Harreman afektibo sendoa eratu.
- Haurraren jarduera autonomia ahalbidetu eta errespetatu.
- Haurrari bere buruarekiko zein ingurunearekiko kontzientzia garatzen lagundu.
- Osasun-egoera fisiko ona izatea ahalbidetu, aurreko printzipioen ondorio eta oinarri.

Lau printzipioek garrantzia berbera dute eta, ondorioz, guztiak errespetatu eta arreta berdina eskaini behar zaie. Izan ere, Lóczy-n aplikatutako sistema honek zentzua dauka jarduera guztietan lau printzipioak aldi berean errespetatzen baitira. Horietako bat alde batera utziz gero, bertan eskaintzen den oreka hautsi egingo litzateke (David eta Appell, 2010).



### Harreman afektiboa

Haurra aktiboa izan dadin, ezinbestekoa da segurtasuna sentitzea. Segurtasun hori hezitzailearekin daukan harremanari esker lortzen du, harreman beroa eta konfiantzazkoa (Falk, 2003). Tardos-en (2008a) hitzetan, “el niño, para sentir deseos de actuar, para ser capaz de este aprendizaje basado en la actividad autónoma, tiene necesidad de una relación profunda, que le proporcione el sentimiento de seguridad, condición necesaria para un estado afectivo conveniente” (51.or.). Horregatik, Lóczy-ren lehen printzipioa haurrari hezitzailearekin harreman afektibo egonkorra izatea ahalbidetzea da.

Lóczy-n haurren bizitza eta harremanak egonkorrak izan daitezen, haurrak zaintzen dituzten pertsona kopurua mugatua da eta haurren egonaldi guztian zehar zaintzaileak berdinak izan daitezen saiatzen dira. Horrela, David eta Appell-ek (2010) adierazten duten bezala, alde batetik, hezitzaileek haurren jarraipen bat izan dezakete eta, bestetik, eguneroko zaintzen konstantziarekin haur eta hezitzailearen artean harreman sendoa eraiki daiteke. Era berean, hezitzaile guztiek berdin burutzen dituzte eguneroko zaintzak, haurrei eskainitako arreta berdina izan dadin beti.

Hezitzaileekin sortzen den harremana sendoa eta konfiantzazkoa izan arren, modu kontzientean kontrolatuta dago. Hezitzaileak haurraren beharrak ulertu eta bere nortasuna errespetatuz jarduten du; izan ere, haurtzaroz duen ezagutza oso handia da, oso ondo ezagutzen ditu haurrak eta, haur baten portaera hobetu behar izatekotan, talde pedagogikoaren laguntza dauka beti. Azken finean, bere helburua haurrari garatzeko behar dituen baldintza guztiak eskaintzea da.

Haur eta hezitzailearen arteko harreman sendo hori batez ere zaintza momentuetan eraikitzen da, biek elkarri eragiteko duten momentu lasaia baita, non elkarriketa, laztan eta keinu goxoak nagusi diren. Zaintza momentu horietan, hezitzailea adeitasunez eta leuntasunez hurbiltzen da haurraren gana, egingo duen eta gertatuko den guztia aurretiaz jakinaraziz eta haurrari erantzuna emateko denbora eskainiz (Falk, 2003). Era berean, haurraren keinuak eta adierazpenak ulertzen saiatzen da, bere beharrak edota nahiak interpretatuz. Bestera esanda, hezitzaile eta haurraren artean benetako elkarriketak sortzen dira. Hezitzaileak eguneroko zaintza guztiak keinu eta adierazpen horiek kontuan izanik burutzen ditu. Modu horretan, Falk-en (2003) arabera, haurrak zaintza momentuetan eta beharrianak asetzeko eran parte hartzea ahalbidetzen du eta, era berean, bien arteko harremana egonkortu egiten da.

Zaintzen arteko denboraldietan haurra aske egon arren, ez dago bakarrik. Hezitzailea hurbil dago eta keinu zein hitzak konpartitzeko aukera dute. Haurrak hezitzailearen presentzia nabaritzen du eta, aldi berean, hezitzaileak haurraren behar eta keinuak nabari ditzake, erantzun egokia eskainiz (David eta Appell, 1986). Tardos-en (2014) hitzetan, “los niños tienen que sentir constantemente la presencia de la educadora que los protege, los defiende, les aporta seguridad (...)” (15.or.).

Beraz, Lóczy-n hurrei eskaintzen zaien arreta zuzena eta hurbila da zaintza momentuetan eta ez-zuzena eta urrutikoa zaintzen arteko momentuetan.

Alabaina, ez da ahaztu behar Lóczy-ren printzipioetako bat haurrak autonomoak izatea dela eta, ondorioz, hezitzailearekiko dependentzia garatzea ekidin behar dela. Hori dela eta, harremana erreal eta beroa izan arren, hezitzaileak ondo ezagutu behar du haurra bere garapen mailari dagokion laguntza eskaini ahal izateko. Ez du haurrak behar duena baino gehiago esku-hartu behar, pixka bat gutxiago baizik, haurra egoera bere kabuz gaintzen saia dadin. Hau da, heldua haurraren garapen maila eta gaitasunetara egokitu behar da, izan ere, helduak gehiegi parte hartzeak zein haurrari larregi eskatzeak, dependentzia sor dezake azken horrengan. Horren ondorioz eta haurraren gaitasunengan duen konfiantza dela eta, hezitzaileak haurraren horrek behar duen arreta guztia jarri arren, ahalik eta gutxien esku-hartzen du.

### Jarduera autonomoa

Autonomia haurra jaiotzen den unetik agertzen da; izan ere, Falk-en (2003) arabera, hezitzailearen laguntza zuzenik gabe burutzen dituen jarduerak guztiak, bere gogo, plazer eta beharrezanetatik abiatuta daudenak, jarduerak autonomoak dira. Horiek guztiak ezinbestekoak dira haurren ikaskuntza eta garapen psikomotor, afektibo zein kognitiborako onuragarriak baitira (Falk, 2003). Heldutan izango duten autonomiaren oinarri dira.

Jarduerak zentzua izan dezaten haurrak berak burutu behar ditu eta lortutako emaitzek sendotuko dituzte. Beraz, hezitzaileak haurrak burutzen dituen jarduerak autonomoak errespetatu egin behar ditu, pazientzia, adeitasuna eta gozotasuna erakutsiz eta haurra maniatu, presa eman edota gehiegi esku hartzea ekidinez (Tran-Thong, 1985). Bestera esanda, hezitzaileak ez du haurren jarduerengan modu zuzenean esku-hartzen, askatasunez jarduten uzten dio.

Hala ere, jarduera autonomo eta espontaneo horiek ahalbidetzen dituzten beste baldintzak eskaintzen dira. David eta Appell-en (2010) arabera, haurrek mugimendu askatasuna dute eguneroko egoera guztietan, beti ere arriskuetatik babestuta egonez eta, horretarako, arropa erosoak eramaten dituzte, flexibleak eta zabalak, beraien adinari egokitutako parkeetan aritzen dira, altzairuak segurtasunez kokatuta daude, eta abar. Gainera, hezitzaileak espazioa material aberats eta ugariz hornitzen du, haurrentzat erakargarriak izan daitezkeen edo beraien interesa piztu dezaketen material eta jostailuak, hain zuzen ere. Hau da, hezitzaileak eskaintzen duen laguntza ez-zuzena da eta haurraren ingurua egokitzean datza. Izan ere, Falk-en (2003) arabera, haurrak burutzen dituen jarduera eta mugimenduak eta hartzen dituen jarrerak modu autonomoan egiten baditu, hobeto egituratuta egongo dira eta koordinazio handiagoa sumatuko da.

Modu horretan, haurra jarrera berriak garatzen joaten da, segurtasunez eta hezitzaileen laguntza edo dependentziarik gabe, behin aurreko jarrerak ondo finkatuta dituenean. Etapa bakoitzaren hasieran entseguak eta erroreak egoten dira baina mugimendua eta jarrera ondo garatuta daudenean, koordinazio eta oreka handia izango ditu (Falk, 2003). Izan ere, Tran-Thong-ek (2005), Wallon-en (1879-1962) teorian oinarrituz, adierazten duen bezala, “las posturas que el niño realiza voluntariamente, por su propia iniciativa, en el momento en que sus aparatos llegan a la maduración, se encuentran mejor estructuradas porque son los efectos de una coordinación del conjunto de las partes del cuerpo” (12.or.).

Hala ere, jarduera autonomoa errespetatzeak haur bakoitza behatu eta ezagutzea eskatzen du: bere gustuak, maila, interesak, joerak, unean uneko nekeak edo laztanen beharra eta abar. Hezitzaileak ez du zuzenean laguntzen, hots, ez du haurra estimulatzeko eta ez dio irakasten ere ez; baina modu ez-zuzenean estimulatzeko, ingurua eta materiala egokituz, erritmoa errespetatuz, hurbil egonez eta, noizean behin, ahozko komentarioak eginez edo haurren keinuei erantzunez (Falk, 2003). Hezitzailearen lana da, beraz, inguru egoki eta segurua eratzea, haurren interes eta beharretatik abiatuz.

#### Haurrei beraiekiko zein inguruarekiko kontzientzia garatzen lagundu

Jaiotzatik haurra, pixkanaka, bere burua eta ingurua ezagutzen joaten da. Hori bi modutara lortzen da (Falk, 2013):

1. Haurrak berak bere gorputzarekin egiten duenaren bidez, hots, bere jarduera propioen bidez.
2. Besteek bere gorputzarekin egiten dutenaren bidez.

Lehenengoari dagokionez, Falk-en (2003) arabera, haurrak berak hasitako mugimendu eta jarrerak bere buruaren irudia eraikitzen laguntzen diote; izan ere, jarduera autonomoek bere gorputza erabili, sentitu eta, ondorioz, ezagutzea ahalbidetzen diote, horrela, gorputzaren gaitasun eta limiteez ohartuz. Gainera, haurrak burutzen dituen desplazamenduek eta inguruko objektu eta materialekin burutzen dituen ekintzek espazioaren pertzepzioa eraikitzen laguntzen diote (Falk, 2003). Beraz, berak burutzen dituen jarduera propioen bidez, mugitzearen, gorputza sentitzearen eta bere gaitasunak eta inguru ezagutzen joatearen plazerraz ohartuko da.

Hezitzaileek haurraren gorputzarekin egiten dutenari erreparatuz, zaintza momentuetan gertatzen da nagusiki. Momentu horietan, hezitzaileak, pixkanaka, haurrari bere burua ezagutzen, gertatzen ari dena eta gertatuko dena ulertzen eta inguru zein egoeraz ohartzen laguntzen dio (David eta Appell, 2010). Haurrak bere sentimendu eta beharrak nabaritzen eta hezitzaileari jakinarazten ikasten du, bere keinuak eta hezitzailearen erantzuna erlazionatuz (Falk, 2008a).

Beraz, hezitzaileak ez du haurra objektu gisa tratatzen, sentitu, behatu eta ulertzeko gai den pertsona gisa baizik. Horrela, Falk-en (2013) arabera, zaintza momentuetan bien artean elkarrizketak sortzen joaten dira, non haurra gero eta aktiboagoa izango den. Alde batetik, hezitzaileak haurrari hitz egin eta horrengandik erantzuna itxaroten du; bestetik, haurra behatzen daki, horren keinuak interpretatuz eta erantzun egokia emanez.

Azken finean, bere burua ulertzen eta ezagutzen eta nahi, sentimendu zein beharrak adierazten laguntzen zaio eta, beraz, parte hartzen eta pertsona autonomo eta arduratsua izaten.

Haurrak bere buruaz sortzen duen irudiak berebiziko garrantzia izango du bere etorkizunean; izan ere, lehen haurtzaroan izandako zaintzak bere bizitza, nortasun eta garapenean eragin zuzena izango du (Falk, 2003).

### Osasun egoera fisiko ona izatearen garrantzia, aurreko printzipioen oinarri eta ondorio

Lóczy-n arreta berezia eskaintzen zaio haurren osasunari. Beraien garapen eta ongizatea ziurtatzeko, ohiko behaketak eta azterketa medikoak egiten dira. Horiek

erregistratu egiten dira geroago aztertu eta dagokion erantzuna eman ahal izateko.

Behaketak 4 motatakoak izaten dira (David eta Appell, 2010):

- Eguneroko behaketak. Bertan eguneroko elikadura, pisua, sabelustea, loa, negarren iraupena eta momentua eta abarren inguruko datuak idazten dira, baita haurrak izandako lorpenak edo eguneko gertaera bereziak.
- Hilean behin egiten diren behaketak. Hezitzaileak tutoretzapean dituen hiru haurrek hilabete horretan zehar izandako garapena, jarrera, egoera emozionala, harremanak, ohiturak, autonomia maila eta abar idazten ditu.
- Grabazioak. Haurra eta hezitzailearen arteko elkarrizketak grabatzen dira, bileretan entzun eta komentatu ahal izateko eta, beraz, haurren hizkuntzaren eboluzioaren jarraipena izateko.
- Garapenaren grafikoa. Haurren mugimenduen garapena, jarrera, inteligentziaren garapena eta soinu eta hizkuntzaren garapena biltzen dituen grafikoa egiten dira.

Behaketa horiei esker haurrek izan dezaketen edozein arazo detekta daiteke, dagokion erantzuna emanaz.

David eta Appell-ek (2010) adierazten duten bezala, osasunaren inguruko ardurak handia da eta Lóczy-ko hezitzaile guztiek oreka eta garapen integrala osasun egoera onaren oinarri direla sinesten dute. Infekzio eta epidemien aurkako neurriak hartzen dira baina beti ere haurren segurtasun afektiboa ziurtatuz.

Haurren osasun egoera, orokorrean, oso ona da. Hala ere, haur bat gaixorik dagoenean, ez zaio taldetik ateratzen eta bere ohiko zaintzaileek zaintzen dute. Tresneria berezia behar duen haurra bakarrik ateratzen da taldetik, beti hezitzailearekin batera.

Lóczy-ko eguneroko bizitzako egoera eta ekintza guztietan 4 printzipio horiek kontuan hartzen dira: taldeak egitean, zaintzen momentuan, jarduera askeen momentuan eta gainerako jarduera eta harreman sozialetan. Printzipio horiei esker, alde batetik, jarduteko modu original bat sortu da eta, bestetik, errutina sendo bat eraiki da, aldatu nahi izanez gero, pixkanaka eta haurren beharrak behatuz eta aztertuz moldatu behar dena (David eta Appell, 2010).

#### 1.4. Lóczy-ko jarduera nagusiak

Lóczy-n jolas libreak eta jarduera autonomoek haurraren denboraren zati handi bat betetzen dute. 18 hilabete inguru izan arte, denbora guztia jarduera autonomoa ahalbidetzen duten egoeretan egoten da, zaintza momentuetan izan ezik. Gainera, 18 hilabeteetatik aurrera beste jarduera batzuk gehitzen badira ere, haurraren zeregin nagusia jolas libre eta jarduera autonomo horiek dira. Izan ere, Tardos-en (2014) arabera, jolasak hainbat funtzio betetzen ditu haurraren bizitzan: mugimendu nahiak asetzen ditu, bere ezagutza eta esperientziak aberasten ditu, mundua ezagutzeko tresnetariko bat da, inguruko objektuen propietateak eta funtzioak ezagutzea ahalbidetzen dio eta trebetasunak garatzen laguntzen dio.

Hezitzaileek jolas libre eta jarduera autonomoen momentu horiek ondo antolatuta izaten dituzte eta talde zein haur bakoitzarentzat faktore nagusi batzuk hartzen dira kontuan (David eta Appell, 2010):

- Eskaintzen zaion denbora: hezitzaileak haurra jarduera autonomoko egoeretan erabat aprobeztatu ditzakeenean eta ondo sentitzen denean bakarrik jartzen du. Horretarako, jolasteko momentu horiek haur bakoitzaren erritmoa, beharizanak eta nahiak kontuan izanez antolatzen dira.
- Espazioa: haurrak erabili dezakeena baino pixka bat handiagoa izan behar da, aurrerapenak ahalbidetzeko eta, aldi berean, segurtasunik eza ekiditeko; elkarri molestatu gabe mugitzea ahalbidetu behar du; eta haurrari, arriskurik gabe, egoera berriak menperatzen ikastea ahalbidetu behar dio.
- Objektuak eta materialak: hauek aukeratzekoan haurraren gaitasun lokomotore eta manualak eta beraren interesak kontuan hartzen dira. Era berean, koloreak, tamainak, formak eta pisuak ere kontuan izaten dira eta material kopurua adinaren arabera da.
- Hezitzailearen esku-hartzea: ez du modu zuzenean esku-hartzen, hots, ez du posizioz ezta jolasik proposatzen. Bakarrik esku-hartzen du aktiboki haurra egoera zail batean dagoenean eta bere kabuz konpontzea lortzen ez duenean, gatazkaren bat dagoenean edota haurra nekatuta dagoela antzematen duenean. Bestela, hezitzailearen esku-hartzeen helburu bakarra baldintza egokiak mantentzea da.

Jolas libre eta jarduera autonomo horiek haurraren denbora gehiena betetzen duten arren, Tardos-en (2014) aburuz, seguru sentitzen den eta oinarrizko beharizan

fisikoak ase dituen haurra soilik jolas dezake poztasunez. Segurtasun eta beharrianen asetze horretan zaintzek funtsezko papera betetzen dute. Falk-en (2013) arabera, momentu horiek garrantzia handienekoak eta haur eta hezitzailearen artean harreman intimoena ahalbidetzen dutenak dira. “Pensamos que si el bebé vive la seguridad afectiva durante el cuidado, después sacará provecho a la oportunidad de actuar libremente y se volverá hacia el mundo con interés y placer, sin que el adulto intervenga” (Falk, 2013, 2.or).

Horrez gain, kontuan izan behar da, Falk-ek (2013) adierazten duen bezala, pertsonen osasun mentala lehen haurtzaroan jasotako zaintzen arabera eraikitzen dela. Zaintzak egokiak ez badira, heldutan horren ondorioz sortutako ondoeza sentituko dute. Beraz, Lóczy-n zaintzei eskaintzen zaion denbora jarduera autonomo eta jolas libreari eskaintzen zaiona baino laburragoa den arren, horien garrantzia ez da txikiagoa.

Zaintza guztiek, alde batetik, haurren ongizatea bermatu eta beraien beharrak asetzea dute helburu; bestetik, egitearen plazerra sustatu eta mantentzea ahalbidetu nahi dute, horrela haurren autonomia garatuz; azkenik, haurrek bai hezitzaileak bai beraien burua ezagutzea eta kontzientzia hartzea bilatzen dute, bien artean harreman afektibo erreala eraikiz (David eta Appell, 2010).

Hezitzaileak haurren beharrak asetzen ditu, egingo duen guztia azalduz. Hasiera batean, beharrian horiek haurrentzat desatseginak eta ezezagunak dira. Hezitzailea da larritasun horiek asetzen dituen pertsona, bere keinuak eta mugimenduak interpretatuz. Pixkanaka, haurrak bere behar horiek ulertzen eta adierazten ikasten du, bere premiak helduaren erantzunarekin lotzen dituen heinean (Falk, 2013). Beraz, hezitzaile eta haurren artean elkarrizketa bat sortzen da, zeinetan begirada, hitz, laztan eta keinuen bidez komunikatzen diren. Zaintza horiek modu berean burutzen dira beti, hezitzaileak momentu oro egingo duena azalduz eta bat-bateko aldaketarik egin gabe.

Modu horretan, Falk-en (2013) arabera, haurra bere beharrak interpretatzen eta komunikatzen ikasten joan ahala, bere buruaz eta inguruaz kontzientzia hartzen joaten da. Hau da, bere “nia” eta beharrianak hobeto ezagutzen joaten da, bere buruaren irudia eratzen hasten da eta bere burua inguru sozial eta materialean kokatzen du, espazioan eta denboran, gertaeretan eta harremanetan (Falk, 2008b).

Era berean, pixkanaka, haurra eta hezitzailea elkar ezagutzen dira. Haurraz arduratzen den hezitzailea berdina da beti eta horrek bien artean harreman afektibo sendo eta egonkorra eraikitzea ahalbidetzen du. Hezitzaileak haur bakoitza ezagutzen du eta bakoitzaren keinuak eta erreakzioak ulertzen ikasten du, beharrezko erantzuna

emanez. Bien artean sortzen den harreman horrek haurraren kooperazioa bultzatuko du eta, aldi berean, kooperazioak berak harremana sendotuko du (Falk, 2008a). Hezitzaileak ez du berez haurraren kooperazioa exijitzen, baina ahalbidetu eta estimatu egiten du.

Haurrak bere nahiak eta beharrak adierazteko gai dela eta horiek entzunak direla ikusteak, hots, parte hartzaile aktiboa dela sentitzeak, segurtasuna ematen dio, hezitzailearekin elkarlanean aritzearen plazerra sentitzen du eta, ondorioz, bere autonomia garatzen joaten da pixkanaka. Baina, Falk-en (2003) aburuz, autonomia hori ez da helburua berez; ez dauka zentzurik haurrak horren plazerra sentitzen ez badu, hots, haurrak berak parte hartze eta autonomo izate hori balioesten ez baditu.

## **2. ZAINTZAK PIKLER-LÓCZY METODOLOGIAN**

### **2.1. Zaintzen ezaugarriak**

Burutzen den zaintza edozein izanda ere, hezitzaile guztiek lau ezaugarri nagusi hartzen dituzte kontuan beti. Haurra garatu ahala zaintzak burutzeko era eboluzionatuz joan arren, ezaugarri horiek ez dira inoiz alde batera uzten (David eta Appell, 2010):

- Haurra ez dute inoiz objektu gisa tratatzen, sentitu, behatu eta ulertzen duen pertsona gisa baizik.
- Zaintzetako ekintza guztien sekuentzia berdina da beti. Hezitzaileek horiek ikasi eta zaintza guztietan berdintsu errepikatzen dituzte. Modu horretan, haurrek ondoren zer gertatuko den edota zein ekintza burutuko duten jakin dezakete momentu oro eta ikasi ahala, aurrerantzean hezitzaileari laguntzeko gai izango dira, ez halabeharrez baizik eta nahita, jardueran parte hartzeko gogoagatik.
- Ez dago presarik. Hezitzailea momentu guztietan zerbait egiten egon arren, ez du presarik erakusten eta haurrari behar duen denbora guztia eskaintzen dio, haurrak egoera, esandakoa, galdetutakoa edo eta eskatutakoa benetan eta ondo uler dezan.
- Zaintzak ez dira inoiz eteten beste kontu batengatik. Arazo zehatzen bat egon ezean, hezitzaileak hasitako ekintza guztiak bukatzen ditu, haurraren erritmoa errespetatuz. Izan ere, zaintzen momentua haur eta hezitzailearen arteko momentu lasaia da, zeinetan bien arteko harremana sendotzen den eta haurrari bere buruaz eta inguruaz kontzientzia hartzen laguntzen zaion. Beraz, haur bakoitzari behar duen denbora eskaintzen zaio, zaintzak moztea ekidinez.



Ezaugarri horiek argi ikus daitezke hezitzailearen keinu gozoetan, haurraren parte hartzean eta ezarrita dagoen ordenan.

### **2.1.1. Keinu gozoak**

Keinuen leuntasuna bereziki garrantzitsua da haurrak egiten zaion guztia sentitzen baitu eta bere ongizatea, hein handi batean, horien arabera baita. Zaintzetan hezitzailearen keinuak gozoak eta atseginak ez badira, haurrari segurtasuna ematen ez badiote, haurrak atsekabea eta larritasuna baino ez ditu sentituko. Ondorioz, ezin da haurra hezitzailearen erosotasunaren arabera tratatu. Gainera, haurrak keinu horien bidez informazio asko jasotzen du, izan ere, mugimendu eta laztan gozo eta leunek interesa eta arreta adierazten diote eta keinu latzek, ordea, axolagabetasuna erakusten diote (Tardos, 2008b). Hezitzaileak, beraz, haurraren erreakzioak behatuz, horrentzako atseginak eta samurrak diren keinuak bilatzen ditu.

Ez da bat-bateko jarrera aldaketarik egiten, ez dira haurrak edonola hartzen, ez dituzte oheak astintzen, ez dizkiote gorputzak modu bortitzean igurzten eta ez da errutinetan bat-bateko aldaketarik egiten (David eta Appell, 2010). Keinu eta mugimendu guztiak gozoak eta atseginak dira. Horrela, haurrak keinu horiek gustuko izanda, zaintza momentuetan pozik sentitzen bada, gero eta lasaitasun handiagoa lortzen du, keinu horiek hautematean gorputza gero eta gehiago erlaxatzen du.

David eta Appell-en (2010) arabera, haurra besoetan hartzeko eta uzteko modua keinuen gozotasun horren isla argia da. Lóczy-n hezitzaileek haurrak besoetan hartzen dituztenean beraien gorputzak eta buruak ondo eusten dituzte, horiek lasai eta seguru senti daitezten. Lehenik eta behin, hezitzaileak haurrari bere izena esanez deitzen dio eta begiradaren bidez bere arreta erakartzen saiatzen da. Haurra konturatu egin dela adierazten duen mugimendu edo keinuren baten zain geratzen da, hots, ez du haurra besoetan hartzen honen erantzuna jaso arte. Ondoren, beso bat igotzen dio pixka bat, esku osoarekin, hots, ahurra eta atzamarrekin haurraren burua hartu eta ondo eutsi ahal izateko. Hori egitean, haurra altxatzen du. Haurra berriro nonbaiten uzteko gozotasun berdina erabiltzen da: haurrari begiratu eta hitz batzuk esaten dizkio lehenengo, haurra agurtuz.

Judit Falk-en (2013) arabera, zaintzetan teknikoki zein pertsonalki egokiro ibiltzeak haurrari segurtasuna ematen dio. Modu gozoan eta seguruan eusten bazaio, haurrak bere muskuluak erlaxatzen ditu. Horrek ez du egoera hipotonikoa, indarkeriaren

aurrean uztearena, adierazten, “erlaxazio tonikoko” egoera baizik. Ondorioz, beti altxatu, eraman eta utzi behar da haurra berak bere kabuz hartu dezakeen posizio batean.

### **2.1.2. Haurraren parte hartzea**

Zaintzetan zehar, momentu oro, hezitzaileak haurraren parte hartzea bilatzen du, haurraren adina edozein izanda ere. Hori, hiru modutan burutzen du (David eta Appell, 2010): egingo duen guztia azalduz, erabiltzen dituen objektuak aurkeztuz eta haurraren keinuetan bere kooperazio aktiboa bilatuz.

Hezitzaileak haurra begiratzuz, hitz egiten dio. Egingo dion guztia azaltzen dio, bere erantzunak komentatzen ditu, berak zer nahiago duen galdetzen dio, aukerak erakutsiz, bere usteak adierazten dizkio eta abar. Ezinbestekoa da hezitzailea haurrarengana leuntasun eta arretaz hurbiltzea eta egingo dion guztia edota gertatuko zaion guztia azaltzea, baita bere keinuak eta mugimenduak interpretatzen saiatzea horiei dagokien erantzuna eman ahal izateko. Horrela, haurtxo txikienei ere zaintza momentuetan esku hartzea ahalbidetzen die. Hasiara batean, haurrak egiten dituen keinu horiek jaiotzetiko mekanismoak izan daitezke, ezer komunikatzeko beharrik adierazten ez dutenak baina, gero, helduekiko kontaktuak komunikabide bihurtzen dira. Ajuriaguerra-ren (1983) aburuz, heldua eta haurraren artean “elkarrizketa tonikoa” sortzen da zeren “progresivamente el niño utiliza actitudes o expresiones que se transforman en señales intencionales a partir de las que espera una respuesta del adulto. En el curso de estos intercambios, el que interpela y el interpelado se abren a la comunicación” (14. or.).

Haurra hazten doan heinean elkarrizketa horiek garatzen doaz ere: hezitzaileak egiten ari dena azaltzen jarraitzen du baina haurraren interesetatik ere abiatzen da hitz egiterakoan. Esaterako, haurraren arreta erakartzen duen zerbait entzun edota ikusten duenean, hezitzaileak komentatu egiten du. Azkenik, haurra nagusiagoa denean, elkarrizketa errealak izaten dituzte.

Hezitzaile guztiek haurrekin dituzten elkarrizketatxo horiek guztiek ezaugarri komun batzuk dituzte: tonu bera erabiltzen da beti, ez oso altua, eta erritmoa lasaia eta nahiko konstantea izan dadin saiatzen dira.

Azalpen horiez gain, hezitzaileak haurrari erabiliko duen objektua aurkeztzen dio: edalontzia, koilara, arropa, orrazia... Objektua erakusten dio, ukitzea, behatzea eta manipulatzeko ahalbidetzen dio, eta aurrerago, bere kabuz erabiltzen ere laguntzen dio.

Azkenik, hezitzaileak haurraren kooperazio aktiboa bilatzen du. Kooperatzeak, hots, lan ezberdinetan parte hartzeak, haurrak bere mugimendu propioekin eskatutakoari edota hezitzaileak hasitako mugimendu bati erantzuten diola esan nahi du (Tardos, 2008). Hasiera batean, haurtxo txikitxoekin, hezitzaileak mugimendu edo keinu espontaneoak aprobetxatzen ditu; adibidez, arropak janzteko momentuan, egin beharrekoa azaldu, besoa altxatzeko eskatu eta besoaren mugimendu espontaneo batez baliatzen da arropa janzten hasteko, haurrak egindakoa azalduz. Modu horretan, haurra hazten joan ahala kooperazio horretaz ohartzen joaten da, azkenean nahita eginez.

Jarrera berdina da posizio aldaketekin: haurrek mugitzeko askatasun osoa dute hezitzaileak bere egitekoa burutzen duen bitartean, hots, hezitzailea da haurraren mugimendu eta jarreretara egokitzen dena. Hezitzaileak haurra beste posizio batean jartzea behar izanez gero, eskatu egiten dio, pixka bat itxaroten du eta haurraren mugimendu espontaneoaren erabiltzen du aldaketa egiteko. Haurra eskatutakoa ulertzeko eta egiteko gai denean, hezitzaileak berak bakarrik burutu arte itxaroten du.

Beraz, ez da inoiz haurra bat-batean, ezer esan gabe, posizioz aldatzen. Egingo duen guztia azaldu, haurraren parte hartzea eskatu eta erantzun bat itxaroten du; hau da, haurraren kolaborazioa bilatzen du momentu guztietan. Baina, eskatzen zaiona ez da betebeharrak, aukera bat baizik. Beraz, haurrak poztasuna senti dezake hezitzaileak eskatutakoa burutzea lortzerakoan baina, burutzen ez badu ere, onartua eta estimatua sentitu behar da. Jarrera horri esker, haurraren eta hezitzailearen arteko harmonia lortzen da.

Hala ere, haurraren kooperazioa eskatzeak, hezitzaileak mugimenduak astiroago burutzea ere eskatzen du, haurrari bere erantzuna emateko behar duen denbora eskaini behar baitio. Horrek zaintza momentuen iraupena luzatzen duela iruditu dezake, baina ez da hori gertatzen; izan ere, haurrak ez die helduaren mugimenduei aurka egiten eta, beraz, ez du lana moteltzen (David eta Appell, 2010). Dena den, Vincze-ren (2013) arabera, helburua ez da zaintzen momentuen iraupena txikitzea, hori baita hezitzailea eta haurra bakarrik dauden momentu bakarra eta, ondorioz, bien arteko harremana sendotzeko, elkar ezagutzeko eta haurrak bere burua ezagutzeko momentu atsegina baita.

### **2.1.3. Ordena ezartzea**

Haurrei ingurua ezagutzen eta gertatuko dena aurretiaz antzematen laguntzeko, zaintzak burutzeko haurrak orden berdinean hartzen dira beti, ahalik eta arinen ezartzen

den orden batean, normalean denboran zehar mantentzen dena, eta kontzientzia hartzen lagunduko diena (David eta Appell, 2010). Horretarako, hezitzaileak haur bat hartzen duen bakoitzean hurrengoari horren ostean bere txanda izango dela jakinarazten dio.

Txanda horiek oso zorrotzak dira eta, ondorioz, haur batek negar eginez gero, bere txanda izan arte itxaron beharra dauka. Hala ere, hezitzaileak haurra lasaitzeko beste egoera bat bilatzen dio, hitz egiten dion bitartean: lekuz aldatzen du, jostailu bat ematen dio, etzan egiten du... Baina ez du inoiz txanda aldatzen. Haurrak 6 eta 10 hilabete bitartean dituenan, taldean duen tokiaz ohartzen hasten da eta, ondorioz, orokorrean, bere txanda itxaroten ikasten du.

Haur bat bere txanda heltzean lo egonez gero, leuntasunez, esnatu egiten zaio. Hori horrela egiten da siesta orduan izan ezik. Haurrak siesta egiten ari direnean ez zaie zaintzetarako esnatzen, merienda beraien espontaneoki esnatu ahala ematen da, esnatzen diren ordenan hain zuzen ere. Berandu esnatuz gero, fruta edo zuku bat baino ez zaie ematen.

Zaintzen ordena zorrotza iruditu arren, ez da edonola ezarri; haurren erritmoa kontuan hartuz ezarri da. Egunero behaketak egiten dira eta, haurrak garatzen joan ahala, errutinak beraien beharretara egokitzen dira. Beraz, dena gertatzen da haurra horretarako prest dagoenean.

Haurrei egokituz ezarrita dagoen orden horri esker, haurrak ez daude etengabe beraien txanda itxaroten. Bakoitza bere ekintzetan edo lo egiten ari da eta, ondorioz, hezitzaileak haur bakoitzari behar duen denbora eskaini diezaioke. Orokorrean, haurraren txanda bukatzen denean, hots, zaintza amaitzean, haurra pozik sentitzen da eta jolasten jarraitzen du edo berehala lokartzen da. Beraz, txanda horiek ikusita, haurren frustrazioa txikitzeko eta beraien ongizatea bermatzeko modu eraginkorra dela esan daiteke.

Bestalde, Lóczy-n ordena kontua askoz ere zoliagoa da, ez baitu haurren ordena soilik kontuan hartzen, egunero burutu beharreko zaintzen ordena ere. Haurra bere jarduera autonomo horietatik ahalik eta gutxien ateratzeko asmoz, burutu beharreko zaintza guztiak elkarren segidan burutzen dira. Segida horrek ordena bera dauka beti, lehenengoz bainua, ondoren jana eta, amaitzeko eta jarduera autonomora bueltatu baino lehen, janztea. Horrek, haurrari gertatuko zaiona aurreratzen eta horretaz kontzientzia hartzen laguntzeaz gain, bere partaidetza errazten du hein handi batean. Ordena ezartzerakoan edo zaintzak ezarritako ordenan burutzerakoan, haurraren izaera ere kontuan hartzen da, horrek izan ditzakeen zailtasunei laguntzeko asmoz. Esate baterako,

haurra jatuna bada, bainua ahal den azkarren egiten zaio, jatera antsietate handiarekin heldu ez dadin; lotia bada eta esnatzea kostatuz gero, ordea, bainua astiroago egiten da edo arratsaldeko txandarako uzten da.

## **2.2. Zaintzak**

Lóczy-n burutzen diren zaintza nagusiak bainua, pixoihalen aldaketa, janzteia eta eranzteia, elikatzea, azterketa medikoak eta loa dira. Horiek guztiak aurreko ezaugarriak kontuan izanik burutzen dira, beti haurren behar, nahi eta erritmoetara egokituz eta haurren jarduera autonomoak ahalik eta gutxien etenez.

Era berean, zaintza edozein izanda, hezitzaileak espazioa eta beharko duen materiala aurretiaz prestatzen du, zaintzarekin hastean haurra inoiz bakarrik ez uzteko eta arreta guztia horrengan jartzeko.

Azkenik, Lóczy-ko zaintzak urteetan zehar azken zehetasuneraino deskribatuak eta ikertuak izan direnez, ondoren horien ezaugarri nagusiak laburbilduko dira.

### **2.2.1. Bainua**

Bainua burutu ahal izateko, gelak alda-lekua, eskuak garbitzeko konketa, bainuontzia eta armairuak edo apalak izaten ditu, dena hezitzailearen eskura. Gainera, erraz berotu eta aireztatu daitekeen gela izaten da. Giroko tenperatura, haur jaioberrien kasuan, 24-25°C-koa izaten da erraztasun handiz hozten direlako. Hala ere, asteak aurrera joan ahala, tenperatura hori jaisten joaten da. Urarekin ere berdina gertatzen da, hots, lehenengo asteetan 37°C-tara egon arren, pixkanaka tenperatura hori jaisten joaten dira (Pikler, 2013).

Haurra bainatzeko eta baita pixoihala aldatu eta arropak erantzi eta jantzeko, alda-lekua behar izaten da. Alda-lekuak altuera egokia dauka hezitzailea eroso egon dadin eta, aldi berean, bera eta haurra elkarri ondo ikustea ahalbidetu dezan. Gainera, hesi bat dauka hiru aldetan, alde batetik, haurra erortzeko arriskurik ez egoteko eta, bestetik, haurra altxatzen hastean, eusteko toki bat eduki dezan. Haurra hazten doan heinean eta zutunik mantentzen den unetik, alda-lekua erabili beharrean, jantzi-lekua erabiltzen hasten da. Jantzi-lekua alda-lekua baino baxuagoa da eta ez dauka hesirik, baina horma edo euskarriren baten ondoan dago beti. Jantzi-lekuaren altuera gehi haurraren garaiera hezitzailearen garaieraren bestekoa izan behar da, zereginak burutzen diren bitartean haurra zein hezitzailea eroso egon daitezen. Haur nagusiagoen kasuan ez da beharrezkoa izaten ez alda-lekurik, ezta jantzi-lekurik ere ez; izan ere, momentu

jakin batzuetan soilik behar izaten dute hezitzailearen laguntza eta, beraz, lurrean esertzeko kuxin bat jarriz arropak bakarrik erantzi ditzakete edo hezitzailearen laguntzarekin zutunik pixoihala jarri dezakete (Vincze, 2013).

Guztia prest dagoenean, zaintzari ekiten diote. Talde bakoitzean, hezitzaileak haur batzuk goizean eta beste batzuk arratsaldean bainatzen ditu, beti sekuentzia berdinean eta eguneko momentu berdinetan. Gainera, bainua haurra normalean esna dagoen momentuan izan dadin saiatzen dira, horren parte hartzea, arreta eta interesa handiagoa izan daitezen (Pikler, 2013).

Lehenik eta behin, haurra biluztu eta gero, aldatzeko mahaian hezitzailea garbiketarekin hasten da. Kotoia olioan busti eta haurra garbitzen du, horren gorputzeko tolesturetan arreta berezia jarriz. Garbiketako sekuentzia beti izaten da berdina, haurra ohitu dadin: burua, lepoa, besoak, hankak, zilborra, sabela, pelbisa, sexu-organoak eta, azkenik, uzkia.

Horren ostean, haur txikiaren kasuan, hezitzaileak haurra aldatzeko mahaian bertan xaboitzen du. Horren sekuentzia ere garbiketaren berdina da, eremu garbienetatik zikinenera. Ondoren, haurra ondo eutsiz, lasaitasunez eta segurtasunez, uretan sartu eta aurreko sekuentzia jarraituz garbitzen du. Bukatzeko, haurra eskuoihalarekin ondo estaliz eta bere gorputza leuntasunez presionatuz, sikatu egiten du, ondoren, pixoihala jarri eta arropa jantziz.

Haurraren arabera, bainuaren momentuak atseginagoak edo ezatseginagoak izan daitezke. Hala ere, bakoitzaren beharizan eta gustu indibidualak kontuan izanez eta horietara egokitzen saiatuz, haurraren tentsioa gutxitzea lortzen da (Truchis, 2010).

### **2.2.2. Pixoihalen aldaketa**

Hezitzaileak haurrari arropak erantzi, pixoihala kendu eta eremua garbitzen hasten da. Lehenengo, sexu-organoen garbiketa burutzen da eta, ondoren, uzkia garbitzen da, beti garbienetik zikinenera eginez. Hezitzaileak haurraren tolestura guztiak arreta handiz garbitzen ditu ere, narritadurak ekiditeko, izan ere, zikinkeria eta jariakin gehienak eremu horietan pilatzen dira (Pikler, 2013). Vincze-ren (2013) arabera, garbiketa ondo burutzeko, ezinbestekoa da tolesturak ondo banantzea eta, beraz, hankak aske egotea; hots, haurraren adina edozein dela eta pixoihala aldatzeko posizioa edozein izanda ere, haurrak prakak, buzoa edo leotardoak kenduta izan behar ditu. Haurra hazten joan ahala, bere kooperazioa zaintza honetan ere handitzen joaten da.

Era berean, haurra garatzen doan heinean, esfinterren kontrola lortzen joaten da. Esfinterren kontrol hori ez da hezitzailearen irakaskuntzaren bidez ikasten; haurra garapen maila jakin batera heltzean lortzen da. Falk eta Vincze-ren (1996) hitzetan, “la adquisición del control de esfínteres no consiste simplemente en la adquisición de un hábito o el aprendizaje de un nuevo conocimiento sino que es un paso importante en el desarrollo mental y social del niño pequeño” (1.or.). Hala ere, hezitzailearen rola oso garrantzitsua da garapen honetan, izan ere, haurrari txikia denetik egiten dion guztiaz edota gertatzen zaion guztiaz hitz egiten dio eta, ondorioz, haurrak egunean zenbait alditan bere pixoihalean txiza edo kaka dagoela entzuten du (Falk eta Vincze, 1996). Beraz, hezitzaileak ez du zuzenki esku-hartzen, modu ez-zuzen batean baizik. Haurra berak eskatzen duenean soilik joaten da komunera edo pixontzira, haur bakoitza horretarako prest dagoenean, eta zerbait egin zein ez egin, ez du hezitzailearen etsipen ezta zorionik jasotzen.

### **2.2.3. Janzte-erantztea**

Hezitzaileak haurrari arropa erantztean, horren mugimendu autonomoz baliatzen da. Ez du haurra inoiz berak nahi duen posizio finko batean jartzen; bere mugimenduak errespetatzen ditu modu natural batean (David eta Appell, 2010). Buruz behera jarri behar badu, jertseko botoiak askatzeko, adibidez, egingo duena jakinarazten dio eta, pixkanaka, biratu egiten du. Haurra hazten joan ahala, mugimendu hori burutzeko behar duen laguntza gutxitzen joaten da.

Haur nagusiagoen kasuan, hezitzaileak arropak bakarrik erantzten uzten die. Hala ere, haurra ez dago bakarrik; hezitzaileak hitzekin eta keinu batzuekin animatzen du haurra eta mugimendu zailenak egiten laguntzen dio.

Janzteari dagokionez, hezitzaileak jantziko dion arropa erakusten dio haurrari eta egingo duen guztia azaltzen dio ere, bere parte-hartzea eskatuz. Pixka bat itxaroten du eta haurrak eskua edo hanka altxatzen duen momentua aprobetxatzen du jertsea edo praka janzteko. Posizioz aldatzeko ere, prozesu bera jarraitzen du, hots, haurraren mugimendu espontaneoek baliatzen da, ahal duen neurrian, eta posizio aldaketa leuntasunez burutzen du. Modu horretan, zaintza momentu horretan aktiboki parte hartzea ahalbidetzen dio.

Jertsea eta praka janzteko, hezitzaileak ez du haurraren beso eta hanketatik tiratzen; mahuka eta prakaren hanka jasotzen du eta, bertatik hiru atzamar sartuz, haurraren eskua edo oina eutsi eta mahuka edo hanka igotzen dio (Pikler, 2013).

Haurra hazten joan ahala eta, horrekin batera, gaitasunak garatzen dituen heinean, hau da, bakarrik esertzeko, zutuntzeko eta buelta emateko gai denean, hezitzaileak mugimendu horiek guztiak onartzen ditu eta beraietaz baliatzen da ere. Pixkanaka, arropak erantzeko zein janzteko autonomia eta zuzentasun maila handitzen joaten da.

#### **2.2.4. Otorduak**

Otorduetako ordutegia finkoa izaten da eta, behar izanez gero, haurra esnatzen da jatea tokatzen zaionean. Hori horrela egiten da otordu guztietan siestako orduan izan ezik. Merienda da haurrak espontaneoki esnatu ahala eta esnatzen diren ordenan ematen den janari bakarra.

Jateko prozesuari dagokionez, era ezberdinetan egiten da haurraren garapen mailaren arabera. Hala ere, haurraren garapena edozein izanda eta erabilitako teknika edozein izanda ere, badago beti errespetatzen den arau bat: haurrari ez zaio inoiz jatera derrigortzen, bera da zenbat jango duen erabakitzen duena (Vincze, 2002). Haur txikienean kasuan, hezitzaileak arreta jarri behar du beraien keinu eta adierazpenetan, jaten emateari noiz utzi behar dion jakiteko. Era berean, kontuan izan behar da beti baita, edozein momentutan haurrak atzera egin nahi edo behar badu eta arinago erabiltzen zuen metodoa erabiltzen jarraitzeko beharra badago, hezitzaileak errespetatu egiten duela. Vincze-ren (2002) arabera, atzerapauso horiek haurra oraindik metodo berriarekin moldatzen ez delako edota momentu jakin batean behar duelako gerta daitezke eta hezitzaileak normaltasunez onartzen ditu.

Haurra garatzen joan ahala, esan bezala, jateko erak ere aldatzen joaten dira. Haurra honako uneetatik igarotzen da (Vincze, 2002): tetinatik edatea, edalontzian edatea, koilararekin jatea, mahaian eserita jatea eta, azkenik, taldean jatea. Txikienean kasuan janaria indibidualki prestatu eta ematen zaie; handienei dagokienez, ordea, taldetan egiten da eta beraiek hartu edo hezitzaileak zerbitzatzen die.

Lóczy-ren lehenengo urteetan haur txikienek, bi hilabete eta erdi, gutxi gorabehera, bete arte, titia bakarrik hartzen zuten. Urte batzuetara titia emateari utzi eta, horren ordez, esne maternizatua erabili izan da. Gero, janaria gehitzen joaten da elikadura mistoa, txori-larrosa infusioak eta fruituen zukuak emanez eta, pixkanaka, 5-6 hilabete inguru dituenean, titia edo biberioia hartzeari utziz. Hezitzaileak haurrari ematen dizkion elikagai horiek, lehen momentutik edalontzian edo koilararekin ematen dizkio. Gainera, haurrari koilarakada bat eman baino lehen bai koilara bai edalontzia erakusten



dizkio, jaten emango diola jakinarazteko. Era berean, haurrak otorduetan ere aktiboki parte hartzeko aukera izan dezan, besoak askatasunez mugitu ditzakeela ziurtatu behar du; edalontzia eta koilara hartu ahal izateko eta apurka bere kabuz jaten hasteko, besoak mugitzea ahalbidetuko dio.

Haurra bakarrik edateko gaitasuna garatzen joan ahala eta koilara hartzeko saiakera gehiago egiten doan heinean, hezitzailea horiek gutxiagotan erakusten joaten da ere. Haurra dagoeneko koilara hartzen hasten denean, “koilararen 2. fasea” hasten da. Fase honetan, hezitzaileak eta haurrak koilara bana izaten dute eta biek batera burutzen dute lana (David eta Appell, 2010).

Hurrengo unea aulkian esertzeari dagokio. Lehenik eta behin, Pikler pupitrean -mahaiari elkartuta dagoen eserlekua- esertzen da eta, ondoren, mahaitik bananduta dagoen aulkian. Etapa honek garrantzia handia dauka autonomiaren garapenean pausu handi bat ematea eskatzen baitu. Vincze-ren (2002) arabera, etapa honetara pasatzeko ezinbesteko baldintzak honakoak lirateke:

- Modu egonkorrean esertzeko gai izatea, edonon eta laguntzarik gabe.
- Hezitzailearen altzoan bakarrik edaten jakitea, edalontzia esku biekkin eutsiz eta ondo inklinatuz.
- Hezitzaileak hitz egiten dionean, beragandik zer espero duen ulertu behar du.
- Eta, batez ere, esperientzia bizitzeko gogoia izan behar du.

Haurra mahaiari bakarrik jateko gai denean eta momentu jakin batzuetan soilik eskatzen badu laguntza, beste haur bat, jateko autonomiaren lorpenean bere ostean dagoena, bere ondoan jaten has daiteke. Hori izango litzateke, hain zuzen ere, taldean jateko etaparen lehen pausua. Vincze-ren (2002) aburuz, haurra taldeko mahaiari jaten hasten denean, dagoeneko beharrezko heldutasuna izan behar du eta, beraz, gerta daiteke talde batean autonomiaren lorpenaren maila ezberdinetan dauden haurrak egotea; hots, talde batean jateko etapa ezberdinetan dauden haurrak egotea.

Azkenik, haur helduenen kasuan, otordu bakoitzean haur bat zerbitzatzeaz arduratzen da. Honek, hezitzaileari mahaiari prestatzen eta batzen laguntzen dio. Mahai honetan, nor bere buruari zerbitzatzen dio.

### **2.2.5. Azterketa medikoak**

Haurrek Lóczy-ko pediatria berbera izaten dute egonaldi osoan zehar eta horrek egiten dituen azterketa medikoak ohikoak edota haurra gaixorik dagoelako izan

daitezke. Arrazoia edozein izanda, ahal den neurrian azterketa atsegina izan dadin saiatzen dira.

Horretarako, medikuak, haurarentzat ulergarriak diren hitzekin, egingo duen guztia azaltzen dio, zergatik egiten dion eta baita min egingo dion eta min horrek asko iraungo duen. Garrantzitsua da azterketa horietan haurrari bere sufrimenduaz edo eta beldurraz hitz egitea eta beldur, ondoez edo sufrimendu hori ez ukatzea. Horrek ez du haurrak negar egiteari uztea edo tratamenduari uko ez egitea eragiten, baina, pixkanaka, etorriko denaz jabetzen eta horren aurrean ez paralizatzen ikasiko du (Truchis, 2010). Gainera, kontuan izan behar da, alde batetik, modu horretan haurrak entzuna dela sentituko duela eta, bestetik, negarrak tentsioa husten lagundu diezaiokeela.

Bestalde, medikuak egingo dion guztia eta haurrari gertatuko zaion guztia azaltzeaz gain, gainerako zaintzetan bezala, bere parte hartzea bilatu eta onartzen du. Gerta daiteke momentu jakin batean haurrak azterketari uko egitea, miatua izatea ezeztatzea. Orduan, medikua haurra lasaitzen saiatzen da, egin beharrekoa azalduz. Haurrarekin akordiora heltzea lortzen ez badu eta une batez behartu behar badu, gero berriro ere haurra lasaitzen saiatzen da (David eta Appell, 2010).

#### **2.2.6. Loa**

Hezitzaileak sehaska edo ohea haurrari babestua sentiarazten dion espazioa izan dadin saiatzen da; izan ere, Truchis-en (2010) arabera, “es un momento de encuentro consigo mismo y su pasado en todo lo que tienen de bueno, pero también un momento de separación, de soledad, un poco inquietante o, a veces, triste...” (62.or.). Beraz, ezinbestekoa da segurtasuna sentiarazten dion tokia izatea.

Sehaskan edo ohean haurrak bere gorputza ondo eutsita izaten du beti; gorputz osoa baina, batez ere, burua eta bizkarra segurtasunez jarrita sentitu behar ditu. Gainera, haurra behatuz, hezitzaileak nola dagoen erosoan eta zer gustatzen zaion gehien ikus dezake. Lo egiteko momentuan daraman arropa ere eroso izaten da eta ez ditu bere mugimenduak oztopatzen.

Era berean, sehaskako hesiak babestuta daude, alde batetik, haurrak hurbiltzeko eragozpenik ez izateko eta, bestetik, kanpoko estimuluetatik apur bat aldentuta egon dadin, batez ere lehen hilabeteetan. Nagusiagoak direnean, sehaskak batez ere siesta orduan babesten dira, haurra lasaitzeko eta ondokoarekin solasean edo jolasten aritu ez dadin.

Bestetik, sehaska edo ohea jostailurik gabeko toki lasaia izan behar da; izan ere, David eta Appell-en aburuz (2010), alde batetik, haurrak ohea, lo egiteko toki lasaia, eta parkea, jolasteko tokia, bereizten ikasi behar du eta, bestetik, ohean haurrak lan nahikoa dauka ingurua behatzearekin edo, txikienean kasuan, bere gorputza deskubritu eta esperimentatzearekin. Gainera, jolasteko espazioan denbora igaro ondoren, haurrak deskantsatu eta erlaxatzeko denboraldi horiek ere behar eta nahiko ditu.

### 2.3. Laburbilduz

Haurrak lehen haurtzaroan jasotzen dituen zaintzek berebiziko garrantzia daukate bere bizitzan eta etorkizunean; izan ere, haurrak hazteko eta garatzeko berezko gaitasun edo joera daukan arren, hazkuntza eta garapen horiek ahalik eta hoberen burutu daitezten, beharrezkoa da baldintza batzuk betetzea, eta kalitatezko zaintzak dira baldintza horiek (Falk, 2013). Falk-en (2013) hitzetan,

La salud mental de una persona se construye a partir de la calidad de los cuidados recibidos a lo largo de su primera infancia. Si han sido suficientemente buenos, ni si quiera nos damos cuenta. Si, en cambio, no son apropiados, si las cosas no van bien, la persona se siente mal. No sentirá la falta de cuidados de calidad de su infancia, sentirá el “malestar” resultante (15.orr.).

Hori dela eta, Lóczy-n eskaintzen diren zaintza horiek errespetuz eta haurraren beharrezkoak eta nahiak kontuan izanez burutzen dira, hots, haurra behatu, sentitu eta ulertzen duen pertsona gisa tratatuz.

Era berean, haurren jarduera autonomoen momentuek duten garrantzia dela eta, zaintzek momentu horiek ahalik eta gutxien moztu ditzaten saiatzen dira. Horretarako, burutu beharreko zaintzak elkartu egiten dituzte, guztiak elkarren segidan eginez. Dena den, badira zaintzen momentu horietan beti kontuan hartzen diren zenbait faktore:

- Hezitzailea zaintza momentuetan haurra behatuz eta bere erantzunez jabetuz, horrentzat atseginak eta samurrak diren keinuak bilatzen ditu, molestatzen ez diotenak (Tardos, 2008b). Beraz, haurra leuntasunez tratatzen du, gustuko duena kontuan izanez. Era berean, hezitzaileak ez du presarik erakusten, haur bakoitzari behar duen denbora eskaintzen dio.
- Zaintza momentu horiek hastean arreta guztia haurraren jartzeko asmoz eta zaintza horiek eten behar izatea ekiditeko, hezitzaileak haurra hartu baino lehen beharrezko izango duen material guztia prestatzen du.

- Zaintzetan zehar hezitzaileak haurraren mugimendu autonomoak errespetatzen ditu beti eta, horietaz baliatuz, haurraren parte hartzea bilatzen du.
- Hezitzailearen hitz egiteko era lasaia da, haurrari tonu baxuan eta erritmo konstantean hitz egiten dio, modu sinple eta argian.
- Hezitzaileak haurrari egingo duen guztia eta gertatuko zaion guztia azaltzen dio, ondoren datorrenaz ohartarazteko eta, pixkanaka, parte-hartzera animatzeko. Era berean, bere keinuak eta mugimenduak interpretatzen saiatzen da, bien artean elkarrizketa bat sortuz.
- Hezitzaileak haurrari erabiliko duen materiala erakusten dio: koilara, edalontzia, pixoihala, arropa, eta abar. Modu horretan, haurra horiek ezagutzen joango da eta, pixkanaka, bere kabuz erabiltzen ere.

Faktore horiek guztiek haurrari eskainitako zaintzak kalitatezkoak izan daitezen laguntzen dute.

### **3. ONDORIOAK**

Gizartea aldatzen ari dela eta, horrekin batera, eskolak ere aldaketa handiak jasan dituela uka ezina da. Derrigorrezko eskolaldia sei urterekin hasten bada ere, oso zaila da sei urterekin lehenengo aldiz eskolara doan haur bat aurkitzea. Are gehiago, gero eta sarriagoa da lau hilabeteko haurrak haur eskoletan ikustea. Egun normaltzat hartzen dugun arren, egoera berria da eta, zaila, bai haurrentzat, bai guraso eta hezitzaileentzat.

Haurra jaiotzen den unetik, berarekin denbora gehien pasatzen duen pertsonarekin, gehienetan ama edo aita, atxikimendu sendo bat eratzen da. Hori dela eta, hilabete gutxirekin eskolara joan eta gurasoengandik egunean zenbait ordu bananduta egon behar izateak, sufrimendu handia eragiten die sarritan, bai haurrari bai gurasoei. Ez hori bakarrik, hain lotura estua duen pertsona horrengandik bananduta egoteaz gain, hasieran guztiz ezezaguna den pertsona batekin igaro behar ditu ordu horiek eta, gutxi izango balitz bezala, pertsona hori beste hamaika haurrekin konpartitu beharra dauka. Beraz, argi dago ez dela batere egoera erraza.

Horren aurrean, nola jarduten du hezitzaileak? Horren papera ere ez da batere erraza, izan ere, haur asko izaten ditu bere erantzukizunpean eta, sarritan, seguruenik egokiena edo praktikoa dela pentsatuz edo horien garrantziaz ohartzen ez delako, zaintzak ahalik eta arinen bukatzen saiatzen da, mugimenduak mugatuz eta, ondorioz,

haurra pasiboa eginez. Haur asko daudelako eta denbora eskasa delako, zaintzei ez zaie behar duten denbora guztia eskaintzen.

Hori ikusita, beharrezkoa edo, hobe esanda, egokia da haur eskoletan horrela jardutea? Ikusi dugun bezala, zaintzek berebiziko garrantzia daukate haurren bizitzetan eta etorkizunean. Pikler-rek erakutsi digun bezala, zaintzen momentua ez da haurren beharrak asetzeko soilik; hezitzaile eta haurra elkar ezagutzeko, haurrak bere buruaz kontzientzia hartzeko eta segurtasuna garatzeko, egitearen plazerra sendotzeko eta autonomia garatzeko momentua da. Haurrek haur eskoletan igarotzen duten ordu kopurua kontuan izanda, zaintzek bertan ere duten paper nabarmena uka ezina da eta, ondorioz, hezitzaileen jarreraren garrantzia azpimarratu beharra dago. Baina, nolakoa izan behar da jarrera hori? Nola jardun behar du hezitzaileak zaintza momentuetan?

Pikler-rek eredu ezberdin bat erakutsi digu, zalantzarik gabe, eredu arrakastatsua; haurrak ikusteko eta tratatzeko era ezberdin bat erakutsi digu, haurrak errespetatzen eta ulertzen lagundu digu, beraiengan konfiantza jarritz eta jarduten utziz. Lan honetan ikusi dugun bezala, zaintzen garrantziaz eta horiek haurren bizi eta etorkizunean duten garrantziaz ohartarazteaz gain, urteetan zehar horiek kalitatezkoak izan daitezen burutzeko era deskribatu du. Laburbilduz, zaintzek haurren hazkuntzan, garapenean eta, beraz, hezkuntzan duten eragina eta, horrekin batera, hezitzaileek zaintza momentu horietan zein eguneroko bizitzako gainerako uneetan izan beharreko papera argitu du.

Beraz, hori oinarritzat eta gure gizarteak jasandako aldaketak ikusita, ari dago gure eremuko haur eskoletan jarduteko dugun era birplanteatzeko beharra dagoela. Egokiena, noski, haurrek ahalik eta denbora gehiena gurasoekin igarotzea litzateke, baina, zoritxarrez, gaur egun askorentzat hori ezinezkoa da. Ondorioz, haur eskoletan egoera ahalik eta hoberena izan dadin saiatu beharra dago. Haur asko daude hezitzaileko eta guztiei kalitatezko zaintza horiek eskaintzea zaila dela iruditu dezakeen arren, Lóczy-k eta bertako hezitzaileek posiblea dela eta, noski, merezi duela erakutsi digute. Baina, horretarako, ezinbestean hezitzaileek eta hezitzaile izango garenok, haurra ikusteko eta tratatzeko eran formazio sakona jaso beharra daukagu. Lóczy-ko eredu oinarritzat eta gure eremuko haur eskolen ezaugarriak eta baldintzak kontuan izanez, posiblea da haurra ikusteko eta tratatzeko era hori paperetik atera eta praktikara eramatea.

#### 4. BIBLIOGRAFIA

- Ajuriaguerra de, J. (1983). De los movimientos espontáneos al diálogo tónico-postural y las actividades expresivas. *Anuario de psicología*, (28), 7-18.
- David, M. eta Appell, G. (1986). *La educación del niño de 0 a 3 años: experiencia del Instituto Lóczy*. Madril: Narcea
- David, M. eta Appell, G. (2010). *Lóczy, una insólita atención personal*. Bartzelona: Octaedro.
- Falk, J. (1986). Lóczy y su historia. *La Hamaca*, 8, 4-15.
- Falk, J. (2003). Los fundamentos de la verdadera autonomía. *Infancia*, 116, 22-31.
- Falk, J. (2008a). Cuidado personal y prevención. In Falk (ed.), *Lóczy, educación infantil* (11-20 orr.). Bartzelona: Octaedro.
- Falk, J. (2008b). La estabilidad para la continuidad y calidad de las atenciones y relaciones. In Falk (ed.), *Lóczy, educación infantil* (21-34 orr.). Bartzelona: Octaedro.
- Falk, J. (2013). Si tocamos el cuerpo del bebé... In J. Falk (Ed.) *Bañando al bebé. El arte del cuidado* (7-16 orr.). Budapest: Asociación Pikler-Lóczy de Hungría.
- Falk, J. eta Vincze, M. (1996). Sobre el control de esfínteres. *La Hamaca*, 8, 36-48.
- Herrán, E. (2014). Pikler-Lóczy Eredua: Zaintzea denean hezkuntzaren abiapuntua. *TANTAK*, 26(2), 77-100.
- Pikler, E. (2013). El baño del niño. Guía práctica. In J. Falk (Ed.), *Bañando al bebé. El arte del cuidado* (37-84 orr.). Budapest: Asociación Pikler-Lóczy de Hungría.
- Tardos, A. (2008a). Autonomía y/o dependencia. In Falk (Ed.), *Lóczy, educación infantil* (47-58 orr.). Bartzelona: Octaedro.
- Tardos, A. (2008b). La mano de la educadora. In Falk (Ed.), *Lóczy, educación infantil* (pp. 59-68). Bartzelona: Octaedro.
- Tardos, A. (2014). *El adulto y el juego del niño*. Bartzelona: Octaedro.

Tran Thong (1985). Presentación. In E. Pikler, *Moverse en libertad* (pp. 11-13). Madrid: Narcea.

Truchis de, C. (2010). *El despertar al mundo de tu bebé. El niño como protagonista de su desarrollo*. Bartzelona: Oniro.

Vincze, M. (2002). La comida del bebé: del biberón a la autonomía. *La Hamaca*, 12, 67-82.

Vincze, M. (2013). Sobre la cooperación. Vestir sobre el cambiador, vestido, cojín. In J. Falk (Ed.), *Bañando al bebé. El arte del cuidado* (17-35 orr.). Budapest: Asociación Pikler-Lóczy de Hungría.

Wallon, H. (1984). *La evolución psicológica del niño*. Barcelona: Crítica